

Egonaldi artistikoan parte hartzeko deialdia

IPARHOTS – 2025

EKE, ATABAL ARETOA, KULTURAZ KULTUR KOOPERATIBA, MUSIKA BULEGOA ETA
BARTZELONAKO EUSKAL ETXEA

1. Aurkezpena

EKEk, Atabal aretoak, Kulturaz Kultur Kooperatibak, Bartzelonako Euskal Etxeak eta Musika Bulegoak, Iparhots egonaldi artistikoaren beste edizio bat abiatu dute, euskaraz abesten duten iparraldeko musika sortzaileei babesa emateko. Programa honen helburua sormen eta ekoizpen prozesuetan laguntzea da.

Iparaldeko ekosistema artistiko musikala indartzeko asmoarekin diseinatutako deialdia da hau. Urtean deialdi bat egingo da eta 2025eko irailetik aurrera, bi zatitan banatuta, burutuko da egonaldia: bi egun Azpeitiako Dinamoia sormen gunean eta bi egun Biarritzeko Atabal aretoan. Horretaz gain, 2026ko lehendabiziko sei hilekoan Bartzelonako Euskal Etxean kontzertua eskainiko du hautatua izan den talde edo musikariak.

Programa honen bitartez, talde eta artista berriak lagundu nahi dira, eta hauek bere proiektuak garatzeko espazio bat sortu.

2. Xedea

Programa honen xedea da EKEren, Atabal aretoaren, Kulturaz Kultur Kooperatibaren, Bartzelonako Euskal Etxearen eta Musika Bulegoaren artean egonaldi artistiko bat eskaintzea Gipuzkoan eta Lapurdin.

Deialdian euskaraz abesten duten iparraldeko (Lapurdi, Behe Nafarroa, Zuberoa) edozein musikarik parte hartu dezake, beti ere lan diskografiko berria edo zuzeneko emanaldi bira berria bultzatzeko asmoa duten proiektuei lehentasuna eskainiaz.

Egonaldia lau egunekoa izango da, 2025ko irailetik abendura bitartean. Espazioa, testuingurua eta denbora eskainiko da egonaldia Azpeitiako Dinamoia sormen gunean eta Biarritzeko Atabal aretoan garatzeko.

Deialdira aurkeztuko diren proiektu guztien artean proposamen bat aukeratuko da eta aukeratua izan den proposamenak, lehen aipatu bezala, kontzertua eskainiko du Bartzelonako Euskal Etxean 2026ko



lehendabiziko sei hilekoan.

3. Hautagaiak / Parte hartzaileak

Deialdian parte hartu ahal izango dute partzialki edo eskusiboki musikaren esparruan proiektuak garatu nahi dituzten iparraldeko (Lapurdi, Behe-Nafarroa, Zuberoa), pertsona fisiko edo juridikoak.

4. Batzordea eta hautaketa irizpideak

Aurkeztutako proiektuak batzorde misto batek balioetsiko ditu. Batzordea lau erakundetako ordezkariak osatuko dute. Balorazio irizpide hauen arabera egingo da:

1. Berrikuntza eta originaltasuna (10 puntu).
2. Proiektuaren kalitatea (10 puntu).
3. Proiektuaren garrantzia euskal musikaren testuinguruan (10 puntu).
4. Taldearen edo artistaren ibilbidea (10 puntu).
5. Taldeak edo artistak egonaldi artistikoari esker lortu ditzakeen aukerak (5 puntu).
6. Emakumearen presentzia (5 puntu).

Ezinbestekoa izango da proiektua euskaraz izatea.

Batzordeak itzarote-zerrenda bat sortuko du lehen hautagaiak, arrazoi pertsonalak edo logistikoak tarteko, ezin badu egonaldia burutu.

Batzordeak deialdia esleitu gabe utz dezake, baldin eta irizten badio proiektuek ez dutela nahikoa merezimendu.

5. Egonaldirako hornidura

Programak prestazio hauek izango ditu:

- Joan-etorriko bidaia, musikariaren edo taldearen bizilekutik Biarritzeko Atabal aretora eta Azpeitiako Dinamoia sormen gunera. Abiapuntu bakarra hartuko da kontuan. Ostaturia behar izanez gero hau ere ordainduko litzateke. Gastu hauengatik gehienez 1.500€ ordainduko dira.
- Lan-gunea: Azpeitiako Dinamoia sormen gunean eta Biarritzeko Atabal aretoan musikariaren edo taldearen sormena burutzeko beharrezko egitura: egoitzako azpiegitura abiaraziko duten



teknikariak, oinarrizko altzariak, korrante elektrikoa, argiztapena eta Internet sarbidea Wifi-arekin. Backline-a eta instrumentuak musikariak edo taldeak eraman beharko ditu.

- Egonaldian parte hartuko duen musikari bakoitzak eguneko 150€ jasoko ditu. Azpeitiako Dinamoia Sormen gunean burutuko den egonaldian gehienez 2.000€ jasoko ditu. Egun horietako jatekoak ere emango zaizkio/e. Horretaz gain aukeratua izan den proposamenaren lan taldean diharduten gehienez beste bi pertsonak diru-sari berdina jasoko dute. Aldez aurretik bi kide hauen lana zein izango den adierazi beharko da. Diru sari hauek faktura bidez ordainduko dira.
- Atabal aretoan egingo den egonaldian musikari bakoitzak eta bere lan taldeko teknikari bakoitzak 90€ garbi jasoko ditu egun bakoitzeko. Jatekoak era ordainduko zaizkio.
- Bartzelonako Euskal Etxean eskainiko den kontzerturako bidai, lo egiteko ostatua, dieta gastuak eta zuzenean arituko den musikari bakoitzeko 150€ ordainduko dira. Gehienez 1.500€ kontzeptu guztiak barne.
- Ordainketak jasotzeko derrigorrezkoa da aukeratutako musikari edo taldea elkarte bezala antolatua egotea.

6. Egonaldiaren iraupena

Egonaldiak lau egun iraungo ditu, bi egun Azpeitiako Dinamoia sormen gunean eta bi egun Biarritzeko Atabal aretoan. 2025eko irailetik abendura bitartean garatuko da.

7. Parte hartzeko baldintzak

Deialdian parte hartze hutsak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- Onartua dagoen eskaera bat baztertu behar bada, hautagaiak egonaldia gauzatu baino bi hilabete lehenago jakinarazi beharko du.
- Azpeitiako Dinamoia sormen gunean egingo den egonaldia amaitzeko orduan, entsegu ireki bat egingo da.
- Iparhots programaren antolakuntzak (EKE, Atabal aretoa, Kulturaz Kultur Kooperatiba, Musika Bulegoa eta Bartzelonako Euskal Etxeak), komunikazio ekimenak aurrera eramatea erabakitzen badu, egonaldian parte hartuko duen musikariak edo taldeak ekimen hauetan parte hartuko du.

8. Aurkeztu beharreko dokumentazioa



Izena emateko epea 2025ko maiatzaren 5etik 29ra, biak barne, egongo da irekita. Deialdiaren emaitza 2025eko ekainaren 27an jakinaraziko da. Iparhots programaren arduradunek bere webgunean eta sare sozialetan argitaratuko dute.

Musika Bulegoaren eta EKEren webgunearen bitartez eman beharko da izena, on line galdetegia beteta.

Hauek dira galdetegian bete beharko diren erantzunak:

- Musikariaren edo taldearen izena
- Herria edo hiria
- Harremanetan jartzeko kontaktua (e posta eta telefono zenbakia)
- Musikariaren edo taldearen ibilbidearen azalpen laburra (gehienez 500 hitz)
- Iparhots programak zertan lagundu dezakeen azalpen laburra (gehienez 500 hitz)
- Aurkezten den proposamena entzuteko hiru esteka (Drive, Spotify, Bandcamp, Youtube, Badok, Musika Zuzenean, Kanaldude, etab.).

Galdetegia euskaraz bete beharko da.

9. Irudi eskubideak

Oinarri hauek onartuz gero, onuradunek Iparhots programako arduradunek (EKE, Atabal aretoa, Kulturaz Kultur Kooperatiba, Musika Bulegoa eta Bartzelonako Euskal Etxea) promozio ekimenetarako eskatuko dieten dokumentazio grafikoa, testuzkoa eta/edo ikus-entzunezkoa edozein euskarritan erabiltzeko baimena ematen diete.

Hautatutako onuradunek baimena ematen diete Iparhots programako arduradunek (EKE, Atabal aretoa, Kulturaz Kultur Kooperatiba, Musika Bulegoa eta Bartzelonako Euskal Etxea) beren irudia erregistratzeko, bitarteko tekniko egokien bidez (argazkia, bideoa, eta b.); eta irudi horiek eta haien izena EKEren, Atabal aretoaren, Kulturaz Kultur Kooperatibaren, Musika Bulegoa eta Bartzelonako Euskal Etxearen webgunean eta/edo beste edozein euskarri ukigarri edo ukiezinetan erabili eta erreproduzitzeko, haien kontrolpean edo hirugarren kolaboratzaileen kontrolpean; horren helburu bakarra, betiere, oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta horiekin hornitutako proiektuak gauzatzea izango da. Baimen hori ezeztagarria da.

10. Oinarriak onartzea

Deialdi honetan parte hartzen dutenek, bertara aurkezteagatik bakarrik, onartu egiten dituzte oinarri hauek.





EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

euskal etxea
centre cultural barcelona

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

**MUSIKA
BULEGUA** Batzen
gaituena.

Zalantzak argitzeko idatzi proiektuak@musikabulegoa.eus helbidera.

